

III. — DROGAK

AURKEZPENA

A. Antonio Beristain'ek *Drogaz eta Kartzeletaz eta Kriminalogiaz* liburu bat egin du.

Gai, benetan garrantza, Gaur, batez ere, Drogari dagokion gaia, edo zeñek dakian bezela. Gaurko egunean Gizadiak duan ezarri ta gaxotaunik aundiena bait da Droga.

Kriminolojiari dagokionez, berriz, gaur kritika gogor baten mendean arkitzen da gai labain eta irixtagarri au. Kritika zorrotz baten mendean, gaurko eguneko Soziolojiak batez ere egin dituan aurerapenengatik. Kriminalojia tradizional aren aurka, Kriminalojia "Kritika" berri bat azaldu da. Egoera onetan bear-bearreko gauza bait da guztiontzat, zertan gaude jakitea.

Ortaraxe dator gure A. Beristain'en liburua.

Drogaren izaera eta arrizkutasuna; Kriminalojiaren azken-itza eta delitoaren ondorengo dan Kartzelaren neurritasuna. Dana gauza benetan jakingarria.

* * *

A. Beristain'en Liburuak lenengo-lenengo Drogaren gaia ukitzen du. Zer da droga?

Droga-klase asko dira. Bañan diranen muin-izaera, ontan biltzen da: "Sustantzia bat, (berezkoa bada, artezkoa bada) asko aldiz artzen duan pertsonagan edenbeneno-egoera zoro bat sortzen duana, artzallearen eta gaurko gizartearen kalte aundirako. Egoera orren agergarriak auek bait dira:

1.º Drogaren egarri ikaragarri bat;

2.º Gero ta geiago artu-nai ta artu-bearra;

3.º Artzallearen gaxo-abarreko egoera fisikoa; ezin-bizi-edo; drogaren geiago “bearra”; bizi izateko...

Drogaren mendean sartzen dana, ezin-bizi batean arkitzen bait da, eta bere kutizia lortzeko gauzarik izaugarrienak egiteko prest.

Droga-klase asko dira.

Drogatik zerbait du *alkoholak* (espirituak), eta baita *tabakoak* ere. Bañan gaur droga aipatzen danean, bi oiek ez dira drogaren arian sartzen. Bi oiek baño indartsuago diran beste batzuek sartzen dira.

Aspaldidanik ezaguna da, droga bezela, *opioa*. Opioa, bai. Opioak ba ditu drogaren agergarri jator bezela aipatu ditugun iru agergarriak:

a) aluzinaziozko egoera, batez ere eta “drogarik gabe ezin bizia”. Eta Sortalde-aldea gerrateak ere opioaren gañetik izan dirala jakitea, naikoa da, opioak Txina’n eta India’n izan duan indarra neurtzeko. Eta Europa’ko zenbait Nazioen eta beren Ekonomiaren oñarri opioa ez bazuten ere, ekonomi opioa/oñarri sendo izan dela jakitea naikoa da, gauz bear bezela neurtzeko. Opioaren kontrabanda, ekonomi-iturri aundia izan bide da iñoiz mundu zabalean.

Gaur *heroína* aipatzen da asko. Eta *Marihuana* “*Marijuana*”. Eta *Hachis*. Eta *Kanabis* erderaz “*Cañamo*” deritzana; eta *Koka*, iñoiz Ameriketako indioak gosea ixiltzeko ogi-orde mastrikatzen zutena...

Oien artean ba dira Botiketan, *medezina* bezela, sendalariaren errezetarekin saltzen diranak: *Marijuana*, adibidez. Ala berean, eta *medezina* bezela, saltzen bait da baita *Morfina* ere.

* * *

Ekonomi-aldetik esan bearrik ez dago, guzti oiek, drogaditoak oso garesti erosten dituztela. Eta, arritze-koa! zenbat-eta garestiago, orduan-ta kutizi aundiagoz. Drogaditoen kutizi zoro ortan oiñarritzen bait da, aín zuzen, Drogaren fabrikamen eta Drogaren Komertzioaren, len aipatu degun deabruzko Organizamen Inter-

nazionala, asko ta asko galanki aberastuaz, eta, ez gutxitan, Estaduen Presopuestoak ornituaz...

* * *

Gañerakoan arritzekoa bait da, norañokoa dan drogaditoaren drogaganako egarri eta kutizia: drogadittoa bere droga-errezioagatik, edozertarako prest arkitzen da:

Eta aldian-bein ain aundia izatera iristen da drogaditoaren droga-egarria, bein baño geiagotan semeak aita edo ama il bait du, droga erosteko dirurik eman nai ez diotelako.

* * *

Propaganda. Zabalkundea.

“El buen paño en el arca se vende” esan oi da erderaz; euskeraz, berriz, “Sagardo ona, kupelean saltzen dala; propagandarik gabe, alegia; kupelean dalgola...”

Berdin gertatzen da drogarekin ere: propaganda aundirik gabe zabaltzen da drogaren berria, ezaguera.

Zer esanik ez, egiten dan bezela, propaganda egiten bazaio. Ez bait da, izan ere, nolanaikoa, gaur drogari egiten zaion propaganda, Propaganda, era guztitakoa, propaganda organizatua.

“Medios de difusión” “Medios de comunicación” di-ralakoetan, droga Askatasunaren, aldeko elementu bezela presentatzen bait da, opresioaren eta gobernuaren kontrako artikulo bezela: protestako artikulo bizkor bezela.

Ori gutxi balitz bezela, droga Errien Politikarekin naastu oi da: errien Ekonomi-politikarekin batez ere. Errien gastu-presopuestoak drogaren Komertzioaren gañean montatu.

Eta ori gutxi balitz bezela, diabruzko beste tingladu bat: Estaduen artean droga galerazi-itxurak egin, orrela kontrabanda ta estraperlo berri bat sortzeko, jendearen erreakzioz drogaren estima aundiago bat sortzeko, jenero galeraziaren aldeko reakzio zoro bañan oso indartsua izan litekeana: estraperloaren psikologia...

Tentazio aundiko psikolojia... Propaganda, propaganda... pertsegitu-itxura egiñaz, gauza fomenta... Drogaren aldeko *Internazional* ikaragarri bat sortzeko... Suitzali-itxurak egiten bait dituzte; bañan egiazki brasari aize-emanaz, garra bizitu egiten dute.

MANUEL LEKUONA

TOXIKO-ZALEKERIAK ESPAÑI'KO ETA ERBESTE'ko PRESONDEGIETAN

*Gizonaren sufrimentuak arintzeko gauza ez
dan filosofia alperrikakoa da.*

EPICURO

*Gizonaren zoritxarra ez da zorionik ez lor-
tzea, baizik eta bere bizi guztian zorionaren
billa ez dagoan tokian ibiltzea baiño.*

El libro rojo de Dios

1. ETIOLOJIA ETA ARAZOAREN ERABAKIA

Gaurko gizartean, drogak sortzen dituzten asarre negargarriak direla eta, ain oiñarritua eta zabaldua dagoan kezkatatik, bereziki aztertzen degu emen españiar (eta erbesteko) drogen sozial-politikazko arazoa. Besteen artean, barruko eta barruko ez diran drogazaleen sufrimentu astunagatik; arlo ontan, Europako Konseilluak aurrera daramazkin-estudioen interesegatik eta baita (laboratorio diran) presondegiak drogakin zer ikusia duten delikuentziaren, biktimaketaren eta baztertzearen motibo, ondorio, eta erabaki nagusienak ezagutzeko errestasun aundiagoa ematen duelako.

Ain zurki Manuel López Rey'ek idatzi zuan bezela, drogazaleen zorigaiztoko drogazale berriak egin be-
arrak, errestasun aundiagoak izaten dituzte presonde-
gietan; persona eta eraikunde asko egin-aalak egiten

ari dira lanean, toxiko joeraren eta drogen trafikoaren aurka, baiñan ez dira beren lurraldearen teknologiazko eta sozio-ekonomiazko egiturak aldatzen bear ainbat saiatzen, bera izanik (bere zuzentasunezagatik) egoera lazgarri onen sorburua. Beste erabateko etiolojiatzko egillea etikatzko balioen urritasunen ipini bear da.

2. TOXIKO-ZALEKERIA ESPAÑI'KO PRESONDEGIETAN

1981'eko urte bitartean, eta 1982'ko 12 illabeteetan (1984'ko udaberrian azaldu zan txostena) España'ko Presondegi-Eraikundeeri zegozkien egoera eta egin zitutzen ekintzeri buruz, Eraikunde oien Zuzendaritza Orokorrak antolatu zituan azkeneko bi Toxsten Generaletan naiko zabilki, eta dirudienez, naiko zintzoki, drogak Presondegi-Eraikundeetan sortzen dituzten arazoaz mintzo dira. Ostera, 1983'an Zuzendari Orokor onen ekintzaz, eta 1982'ko Egitasmoaz (Madrid'en 1984'ko Otsaillak 13) egindako Oroit-Idazkian, bere elburuari zegokionez, drogaren gaiari parrafo bat bakarrik eskaintzen dio.

1981'eko urteari dagokion txostena, agian, baikorregia agertzen zaigu. Esan ere, esaten digu, ziurtasun neurripean dauden barruko epaipetuak, erabat destoxikatzeke sendabide egokia artzen dutela. 1982'ko txostenak, berriz, drogazaleeri ematen zaien tratamentua ez dute balioztatzen.

Zigor-Etxetan sartzetakoan (legez beintzat), toxiko-zale susmoa balinbadaukate, sendagilleak erabat sailkatu arte, bakartu eta oarpean eukitzeko aretoa bear ko lukete (atalak 37/b, L.O.G.P. eta 145/2, R., 140/1 R. P. atalaren arian).

Zuzendaritza orokorrak eskeintzen dizkigun dato guztietatik gure gaietzat garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak aukeratzen ditugu. 1982'ko amabi illabeteetan presondegi-eraikundeetan 52.772 persona sartu ziran. Auetatik drogazaleak 29.052 ziran, eta auetatik zentro berezietan 172 persona bakarrik sartu ziran. Merezi du, geien erabilitako droga kannabis zala jakiteak: ba dirudi 1981'ean 16.639 personak erabili zutela; 1982'an barruan zeuden 18.644 personetaraño geitu zan; L.S.D.

eta aluzinatzaileak 1982'an 2.694'ek erabili zituzten, eta 7.713 personak beste drogak aoz edo ziringaz. Gaiñera persona bat drogaren geiegiz il zan. Zenbait drogazaleen adiñari dagokionez, nabarmenena, zoritxarrez, gazteen ein aundiagoa izatea da. Pixkanaka-pizkanaka gazteen eunekoa geitzen joan da kopuru osoaren euneko 80 eta 90'eraño ere irixteraño.

Madrid'ko Lo-eragillaen (estupefacientes) Zentral Brigada'k 1982'an emandako datoen arabera, aurreko iru urteetan (1979, 1980, eta 1981) 16 eta 18 urteko gazteen artean droga artzea gutxitzen joan da; 26 urtetik goragoko personeren artean berriz geitzen.

Presondegia-Eraikundearen Txostenaren egilleak aitorzen dute, zentroetan barruan dauden toxiko-konsumitzaileak, beren drogazaletasuna asetzearen, iskamilla aundiak sortzen dituztela. Matxinatuak, geienetan, botikin eta ekonomatora jo oi dute alkohol eta sikofarmako billa, edo benetako arazoak ekartzen dituzte baituak artzen dituztenean, orain dala gutxi, Barzelonako Presondegia Ereduan, 1984'ko Apirillaren 13'an gertatu zan bezela.

1982'ko urte bitartean gertatuari dagokionez, Txostenaren arabera, Presondegia-Eraikundeetan izaten diran drogazaletasunaren arazoak ez dira droga arrisku-tsuegatik izaten. Zentro berezietako toxiko-zaleen estadistikak ez dituzte zenbaki berdiñak ematen zer droga motaz eta sartuak izan diradenen urteetaz ari diranean. Droga motari dagokionez, 1982'ko urtean sartuak izan ziran guztiak 172 dira; baiñan sartuak izan diradenen urteaz ari diranean, askoz geiago dira. Zeatz esanda, ospitalean sartuak 222 persona azaltzen dira, droga motaz egindako aurreko estadistikan, berriz, ez da inor agertzen. Ezta ere, ez da zibil egoeraren kapituloan agertzen sartua izandako personik, bai ordea bere familiaren mailla adieraztekoan.

Presondegia-Eraikundeetan 1982'ko amabi illabeteetan sartuak egon diraden droga konsumitzaile guztiak auek dira.

TOXIKAZKO SUSTANTZI KONSUMITZALLEAK
EGON DIRAN ERAIKUNDE MAILLARI DAGOKIONEZ

1982'ko Urte Bitartean

<i>Eraikundeak</i>	<i>Gizasemeak</i>	<i>Emakumeak</i>	<i>Guzira</i>
Epai-Aurrekoak	17.011	2.279	19.290
Betetzea	5.673	51	5.724
Bereiziak	293	2	295
GUZIRA	29.977	2.332	25.309

TOXIKAZKO SUSTANTZI KONSUMITZALLEAK
EGON DIRAN ERAIKUNDE MAILLARI DAGOKIONEZ

1981'eko Urte Bitartean

<i>Eraikundeak</i>	<i>Gizasemeak</i>	<i>Emakumeak</i>	<i>Guzira</i>
Epai-Aurrekoak	17.011	2.279	19.290
Betetzea	5.673	51	5.724
Bereiziak	293	2	295
GUZIRA	29.977	2.332	25.309

Agian geiago artu bearko litzake alkoholaren zer ikusia. Ez dezagun aaztu aspalditik, gure artean, edariak duten garrantzia. 1859'an 37.414 delituetatik, 1.101 mozkorkeriak bultzatuak izan ziran; eta 1862'ko urtean, 35.940 delituetatik, 1.172 jatorri berdiña izan zuten.

Euskal-Erriko Presondegi-Eraikundeetako Zuzendarriak, 1984'ko Apirillaren 5'ean, Euzkadi asterakoak jasotzen duan txosten batean, bat datoz, beren espetxeratuetatik, gutxi-gora-bera % 80 drogazaleak direla esatean.

Onen antzera agertu zitzaion egunkarieri Donostiako Probintzi-Auzitetzeko Pablo Perez Rubio leendakaria. Berak zionez, Gipuzkoako Epai-auzi irurdenak droga-kin zer ikusia dute, batipat, barau-zantzupean dauden drogazaleak egiten dituzten lapurretan delituak. Deklarazio auek Donostiako Herrera auzoan 1984'ko Apirila-

ren asieran izan ziran gertakariagatik egin ziran. Gertakari aietan Fausto Galende gaztea barau-zantzupean zegoela, banketxe batean, lapurreta egiteko asmoz sartu eta bertan il zan. Iia egun aietan, Barrionuevo Barne Ministrari Jaunak esaten zuan, delitu arruntak % 75 droga artzetik eta bere sal-erosketatik zetoztela.

ARAUKETA BEREIZIA

Carlos Garcia Valdés Irakasleak Sozial-Arriskutasun eta Rehabilitatzearen legeak, toxiko-zale bezela markatzen dituenaren legeaz egin zuan bere monografiatzko lanean dio, presondegian sartuak dauden droga artzen duten persona guztieri dagokien giñean, zeñen gutxi begiratzen zaion Españian arazo oni.

Au garbi adieraziko duten estadistikazko zerrrendak ondoren ematen ditugu TOXIKO-ZALEKERIAGATIK SOZIAL-ARRISKUTASUN ETA REHABILITATZEAREN LEGEPEAN TOXIKO'ZALEEN EUNEKO KONPARATIBOA.

Urteak	Abenduaren 31'n atzilotuak zeudenak	Ziurtasu neurrien menpean	Toxiko-zaleke- riagatik trata- tamentuan. %
1974	14.764	982	1,93
1975	8.440	826	4,00
1976	9.937	736	4,33
1977	9.392	459	5,45
1978	10.463	171	13,26
1979	13.627	49	15,08
1980	17.669	39	11,76

AIPATZEN DIRAN URTE AUEN BUKAERAN ZIURTASUN NEURRIEN MENPEAN ZEUDENAK (1972'arte) alkohol-azaleen eta drogazaleen tratamentuen zeudenak, 1973'tik gaur arte soilik toxiko-zaleen tratamentuan zeudenak.

URTEAK

	1962	1963	1964	1965	1966	1967	1968	1969	1970
Gizonezkoak	25	24	25	14	13	10	10	23	19
Emakumezkoak	5	8	1	1	—	—	1	1	5
GUZIRA ...	30	32	26	15	13	10	11	24	24

URTEAK

	1971	1972	1973	1974	1975	1976	1977	1978	1979
Gizonezkoak	32	68	27	17	32	31	24	50	25
Emakumezkoak	3	2	5	2	1	2	1	2	2
GUZIRA	35	70	32	19	33	33	25	52	27

1980'an	Gizasemeak	16
	Emakumeak	—
	Guzira	16

Emen emandako eta beste askok gure legedia, eta oraindik geiago, gure praxia era berritzearen premian daudela adirazten dute, Gaurko erakutsi eta esperientzien argitan, bereziki zarrakituak gelditu dira Arrixkutasun eta Rehabilitatzearen Legearen 2 atala, 7, eta 8 zenbakiak, eta 6 atala, 5 eta 6 zenbakiak.

Berriz diogu, gure Legedia, eta oraindik geiago Kriminal-Politika sustraitik gaurkotu bearraren bear larria dauka. Geroko eraberritzerako asko lagundu lezakete azkeneko polizi txostenak, eta oraindik geiago Europako Konseilluaren eta espezialista batzuen estudioak.

3. ERTZAIN INFORMAZIOA

Sarreran esaten genduaneez, presondegi-eraikundeen txostenak interes aundiko txostenak eskeintzen dituzte, baiñan, espezialisten estudioekin, eta baita ertzainen dato eta iritziekin osatu bearra daukate. Orain azkeneko esparru ontan zertxoabit geldituko gera, eta iia soilik España'ri dagozkionetan.

“Policia Española” D.S.E.’ek argitaratutako Teknika-Profesional’ezko aldizkari onetan, 1976-1982 aldian, Españian delikuentzi arruntaz bere monografiako —38— txostenean, lo-eragilleen (estudefacientes) sal-erosketari dagozkien garrantzizko datoak azaltzen ditu.

Fenando Ledesma, Zuzenbideko Ministrari Jaunak dionez, espezialisten arauera, konsumitzen dana baitutako kopurutik amarrena besterik ez da.

Ondoren, D.S.E.’ren txostenak drogak kriminaltasunakin duan zer-ikusia aztertzen du, eta dio, nazioa-artean aundiro antolatutako zillegi ez dan drogaren sal-erosketa, sarritan, proxenetagintzakin, neska-merkatu-akin eta iruzur aundiakin lotu daogela. Heroina edo kokaina-zale batez España’n, gaur-egun, ia 100.000 pta bear ditu egunean. Eta ori lortzeko delikuentzira jotzen du. Bankuetan egindako atrakoengatik atzilotuak izan direnetik erdia, dirudienez, heroina-zaleak ziran, eta beren lapurretak, nola edo ala heroina lortzeko bear larriak eragin-aziak izaten ziran. Orregatik, esan liteke droga oiek artu bearraren eragiña aundia izan dela delikuentzia zabaltzeko. Au da beintzat, España’ko poliziaren iritzia, eta aintzat eukitzekoa da, naiz eta kriminologilari eta espezialistekin ez bat etorri.

Ikuspegi garrantzitsu batean, polizia, gaurko kriminologilari eta Kriminal Politikako profesionalakin bat datoz, Interpol’ek Mexiko’n ospatutako bere 38’garren biltzarrean artutako erabakian. Erabaki onek bearrezkoa dela dio, zigor eta presondegiari dagokionez garbi bereiztea drogak noiz beinka artzen dituztenak, zillegi ez dan droga sal-erosketan zearo sartuak daudenetatik. Aueri asketasuna kentzen duten zigor astunak ezarri bear zaizkie, sal-erosketa ori geitu ez dadin; baiñan, drogazaleeri, eta droga pixka baten jabe direnei (norberarentzat bakarrik) ez litzaieke asketasuna kendu bear, bearbearrezkoa izan ezik.

Drogak legezko biurtzearen aurka, gure kulturako errialde geienak, gogor agertzen dira, eta ez gutxiago sobiet-errialdeak.

4. IKERKETAK EUROPA’ko KONSEILLUAN

Urteak dira, droga arazoaz; eta batipat presondegi-eraikundeetako droga arazoaz, kezkatzen dela Euro-

pa'ko Konseillua. Ori adierazten du beintzat, bere argitalpen ugari eta garrantzi aundikoetan; auen artean aipamen berezia merezi du 1973'ko Erabakia'k.

Ondoren, azkeneko amar-urteurrenean Europa'ko Konseilluak egindako zenbait oarpen bana-banakoenak aukeratzen ditugu. Puntu batzueri dagokienez, akademiako eta jeografiako motiboagatik, Frantziari dagokienei begiratzen diogu batez ere.

Kriminal-Arazoentzat Europa'ko Batzordeak 1974'esan egin zuan txostenakin asiko dugu kapitulo au. Lan one-tan argi aundia egiten duten orriak azaltzen dira. Adibidez, Paris'ko Barne-Ministeritzak 70'eko urteetan, zenbat pertsonak Frantzian okerbidez droga artzen zuten azaltzen digutenean. 15.000 — 20.000'raño jotzen ziran, naiz oietako batzuek noiz-beinka artzen zutenak izan, eta oiek ezin ditzazkegu drogazale egitakotzat artu. 1971'eko urtearen luzean atzitutako lo-eragilleen (estupefacientes) kopuruak auek izan ziran: opio 46.327 gr., oiñarriko morfina 520.668 gr., heroina 235.958 gr., kokaina 54 gr., L.S.D. 3.616 artu-aldi, morfina 283 anpulu, kannabis 533.115 gr.

Orain dala gutxi, 1984'ko Otsailaren 15'ean, Ministrarien Koseilluaren aurrean, erriko ziurtasunaren arduradun Estaduko Sekretarioak, lo-eragilleen (estupefacientes) sal-erosketaren aurkako burrukaren ondorioen beri eman zuan: 1983'an droga geiegiz 190 persona il dira, aurreko urtean 164 il ziran, 1980'ean 172. 1983'an 168 kg baiño geiago heroina atzitu zan, onek esan nai du 1982'ko urtearen aldean % 70 geiago, eta diruz jota, asierako sal-neurrian, berrogeitamar milloi libera baiño geiago, au da, gutxikako salmentan, sei billoi libera; 229 kg kokaina atzitu dira, au da, 1976'ean baiño eun bider geiago, eta 1982'an iia iru bider geiago, eta onek diruz, asierako sal-neurrian, 70 milloi baiño geiago esan nai du, eta 570 milloi gutxikako salmentan. 12,5 tonelada geiago kannabis belarra atzitu da, eta iia 11 tonelada erretxin, eta onek guzira, asierako sal-neurrian, 110 milloi libera esan nai du, eta gutxikako salmentan, 250 milloi.

Drogazaleetan asketasuna kentzeak duan eragiñaz Dr. Poulain'ek, aintzinako presondegiak etzizutela gure garaiko gizakoi-eskabideak aintzat artzen, egiztatzen du; gaurko presondegi-ospitalak ordea, asketasuna kendutakoan osasuna zaintzeko baldintzak obetogo bete

ditzazkete. Drogazaleen inguru-giroko etenaren arazolari erabakia errezten dio, baiñan erabaki onek, presondegian sartzeak berekin duan galbideratzeko alderdi ezezkorra dauka. Asiera baten, arriskua ez da oso aundia presondegia-ospitala naiko bakandua badago. Baiñan, arazoa bizi-bizia gertatzen da, ospitaleko tratamendua bukatzean. Toxikotasuna kendu ta gero gaxoa ospitalean, bertan lekurik balego, zaitua dago, edo, epailariak, ala baderizkio, aske uztea soluzio bat izango litzake, edo presondegian sartzea. Esperientziak erakutsi du, toxikotasuna kendu zaiona laisterregi aske uzten bada, % 95 droga mendean erortzen direla.

Gaizkillearen familiak, batipat gaztea bada, presondegitik irtetzean, etxean artu eta aal dan neurrian lagundu egin bear lioke. Bear larrikoa ikusten da drogazale izandakoen elkarreak sortzea, auek drogazale gazteak onartu, atotsi eta ulertu ditzaten.

Joan dan urtean bere Erabaki famatuan eskatu zuen bezela, Europa'ko Konseilluak, bere 1974'ko liburuan bere eskabidean jarraitzen du: beste ordeko neurriak ez balirake batere egokiak beintzat, ez dira itxian presondegian sartu bear. Persona auentzat bearrezkoa gertatzen da, dalako "probaketa", betez ere, ezartzea.

Bai Alemania'n, bai Europa'ko errialde geienetan eta Estadu Batuetan, drogaen Zigor-Legediaren aurka delituengatik asketasuna kentzen duen zigorpean erori diren delikente kopurua, azkeneko urte auetan nabarmen geitu da.

Azterketa egin-berriak

1982'ko Abenduaren 6'tik 10'era Messina eta Palermo'n, Europa'ko Konseillua'ren Kriminal Arazoen Europa'ko Batzordearen babespean ospatutako Seminarioan bildutakoak, gaiaz ondo jabetuta, drogazale delikente guztiak giltzapean sartzea edo ez sartzea, eztabaidatzen dute. Alabaña, Seminario ortako partaideak beren ondorio orokorrak artzerakoan, drogaen sal-erosketa obetogo kontrolatzeko, pentsatzen dute, bai Estadu barruan, bai nazio artean neurri estuak artu bear direla, eta sal-erosle profesionaleri zigor gogorrek ezarri bear zaizkiela; beste neurriak, polizi eta aduene-tako funtzionarien ariketak koordinatzera jo bear dute.

Andikan gutxira, Estrasburgo'n 1983'ko Martxoaren 14'tik 16'ra, Pompidou taldeak, au da, drogaren abuso eta debekatutako sal-erosketaren aurkako burruka gaietan lankidego taldeak, toxiko-zale aundieri eman bear zaien giza-laguntzaz Simposio bat ospatu zan. Bere ondorio eta gomendiotatik auek aukeratu ditut:

— Toxikozale aundienagatik ere “toxicomane lourd” (hard-core addict), ez diteke esan ez duela erremediorik, eta onena drogak artzen uztea dela.

— Tratamentuko zentroetan, toxiko zaleentzat bear bezela ornituetan % 30 gutxi gora bera, bir-gizartetzea iritxi ditekela (W Heckman buru zuan aleman taldea).

— Errialde bakoitzak, bere giza-kulturaren inguru-giroakin egokien datozten erak ikasi eta artu bear ditu. (Eta nik au eantsiko nioke: Autonomiazko-Elkartek esku-artze bizi eta berezia artu bear lutekela).

— Toxiko-zaletasunaren (personen) arazoa erabakitzen saiatzea baiño ohea izango litzake, toxikozale bakoitzaren arazoa erabakitzen alegintzea, batipat, bere familiko, lanbidezko eta elkartzeko inguru-giroa kon-tuan arturik.

Eta auen antzekoak, bataz beste, adierazten dituzte Pompidou taldeko Batzorde iraukorraren 7'garen biller-ran izan zirenak. Billera au Strasbourg'en, 1983'ko Apirillaren 27'tik 29'ra egin zan.

Pompidou taldeko Batzordearen billera onek, Bati-kanoak Pompidou talde onen lanetan esku-artzera de-ituia izateko eskabidea ontzat artu zuan eta arrazoiakin, drogaren arazoketari dagozkien gizakoi, gaiak teknika-zientzian oiñarrituta aztertzen bait dituzte. Dato onek, drogaren arazoketa eta erlijiozko arazoketaren artean artu-eman estuak daudela, bein eta berriz, agirian ipin-zen du.

1983'ko Maiatzaren 16'ean Kriminal Arazoen Euro-pear Batzordearen ataleri, Zuzenbidezko Zuzendaritzak prestatutako Sekretaritzza Orokorraren Nota banatu zit-zaien. Nota orrek, 6'garren Erabakiaren puntu garran-tzitsuenari zegokien drogageiegikerien alderdi zigorga-rriaz, Europako Konseillura, Austria, Txipre, Dinamar-ka, Grezia, Irlanda, Luxenburgo, Malta, Noruega, Por-tugal, Alemania'ko Federal Republika, Suezia, Suiza eta Erreinu Batuak bialdutako erantzunen laburpena ze-karkin.

Erantzun oietatik, batzuek, gure gaiekin zer-ikusi berezia dutelako, aipatu nai ditugu: Alemaniko agintedunek ziur daude, Presondegia-Eraikundetan ematen den tratamendu eta bir-gizartetze ori Presondegia-Eraikundez kanpo egin bear dela. Luxenburgo'k, droga salerosleentzat, zigor astunak ipiñi ditu; kaso batzuetan, adibidez, adingabeko batekin legea autsi badu, erruduna betirako katigu-lanakin zigortua izan liteke; egitez, 18 urteko katigu-lana izanda zigorrik gogorrena. Noruega'k Liburu Zuria egitean interes aundia agertzen du, eta baita gai oni dagokion ondorengo legegintzaz ere, eta era berean, giza-serbitzutan, osasun, ertsakor, eziketa eta arau serbitzutan lan egiten duten 40 taldeen eskolaketan, orrela drogazalekeria gutxitzen joan dedin, batez ere gaztetan.

Ala ere, aalegin guzti auek egin arren, ez da gauz aundirik lortu. Ori ikusten da beintzat, 1983'ko Ekainaren 1'tetik 3'ra, Estrasburgo'n, Europa'ko Konseilluan, Presondegia-Eraikundeetako Zuzendarien 6'garren biurteze beingo Mintzaldian.

Mintzaldi ontan, W Rentsmann, Presondegietako Aministrakuntzako eta Probaketa serbitzuko Zuzendari orokor laguna, "Presondegia-Eraikundeetako droga geigikerieeri aurka egiteko aministraziozko neurriaz" mintzatu zan, kendu eziñezko arazo onen informazio aundiakin, bañan lenbaitlen, barruan daudenen duintasunakin sendo bai, eta baita begiratua izango dan irten-bidearen premiaz.

Presondegia-Eraikundetako Zuzendarien mintzaldien azter-gaia, presondegietako demografiaz izan zan. Pierre Tournier'ek, Frantziko Zuzenbide Ministeritzaren izenean, 1983'ko Otsailaren 1'ean Europa'ko Konseillu'ko atal diraden Estaduetako Presondegietako biztanleaz aukeztu zuan kuadroak gogoratzea merezi du.

EUROPA'ko PRESONDEGIETAKO BIZTANLEAK
1983'ko OTSAILAK

	<i>Presondegie- tako biztan- leak guzira</i>	<i>100.000 biztanletik zenbat atzilotu</i>	<i>Epai-aurre- koen eunekoa</i>	<i>Emakumeen eunekoa</i>	<i>Mutiko eta adineko gazteen eunekoa</i>	<i>Atzerritarren eunekoa</i>
Austria	8.748	114,0	25,9	3,8	2,9	7,1
Beljika	5.343	53,4	37,8	4,2	0,6	7,1
Txipre	156	29,7	3,8	0,7	28,7	17,3
Dinamarca	3.236	63,0	28,7	4,0	17,2	3,7
España	22.720	59,8	47,6	2,5	45,7	9,9
Franzia	37.649	67,8	51,6	3,5	17,0	25,7
Grezia	3.300	35,0	31,8	3,5	17,0	12,1
Irlanda	1.281	37,0	11,5	3,5	29,3	1,4
Islandia	83	35,3	12,0	3,5	15,1	1,2
Italia	36.515	64,6	76,0	3,8	2,9	8,7
Luxemburgo	287	72,0	46,7	2,4	30,0	26,8
Malta	101	29,0	29,7	5,0	4,9	8,9
Noruega	2.051	51,5	27,1	3,3	10,6	4,9
Paises Bajos	3.900	28,0	42,3	2,6	25,6	21,8
Portugal	5.188	53,0	32,0	3,6	10,8	5,9
R.F.A.	63.431	102,8	28,1	3,7	12,0	9,4
Reino Unido	43.368	87,0	17,5	3,0	29,0	9,7
Suecia	5.461	65,0	19,5	3,5	2,8	16,5
Suiza	3.700	58,0	32,4	3,6	25,9	25,2

5. KRIMINOLOJIAREN ETORKIZUN BERRIAK

Delituarentzat (oizkoak ez direnak) gure erantzunak gizakoitasun eta zientzi gutxikoak dira, presondegietan sartuak dauden personen geiegizko kopuruak, sufritzen duten gogorkeriak, eta berarenganako arretaren gutxiak adierazten duan bezela. Arretaz egindako azterketak agertzen digute baita ere, esparru ontan, legeak eman baiño leen, ikerketa sakonagoen bearra dagoela; eta baita ere, balorapenen estimua pizkortuaz, gizartea bir-moralizatze dagoen premi larria, gizon guztiak bear-tzen dituzten egin-bearrak aaztu gabe; eta legegintzan eta kriminal Politikaren eraikundeen arrazoizkoa, arrazoiz-gaiñekoarekin orakatzeko konbenientzia.

Legelariak ere, Buñuel'en testamentua entzun bear luteke. Onela agertu zuan españiar zinelari onek bere azken borondatea: "Zientziaganako nere izuak, eta teknikari diodan nere gorrotoak, azkenean, Jainkoarenganako sinismen doakabera eramango nau". Esan eder onen bitartez agertzen du trszendentziaren garrantzia.

Puntu onetan bir-irakurri genezazke Peter Noll suizar zigor-legelariaren bere bizitzeko azken illabetetako esperientziak: bere gaitza eriotzerakoa zela jakituaz, ala idatzi zuan; trszendentzizko gozaketa multzoa, betikotasunaren guraria eta, lurreko etikazko esijentzi zeatza, teolojian atsegin nagusia zela.

Gogora dezagun Europako Konseilluaren lan askoren eustazpi dan Manuel Lopez Rey'ren iritzia (funtsezkoa): oraingo inguru-giroan drogaren abuso eta salerosketaren arazoak (ain bestelakoak baiñan alkarrekin ainbesteko zer-ikusia dutenak) ez dira farmakolojiazko, sendakintzazko, sikolojiazko, zigor-leggediazkoak bakarrik, baizik eta funtsez, gizarte-politikazkoak baiño (erlijiozkoa sartuaz).

Bere azken liburuan Fernando Mantovanik esaten digu, zenbait drogetatik askatzeko, zientziak erantzun berriak emango dizkigula eta erabakia atzeratu nai izatea, arazotik iges egite erruduna dela, orien sustraiak ez bai dira zientziatzko, moralezkoak eta gizartezkoak baiño.

Arazo au, —al dan neurrian—, erabakitzeko, bein eta berriz esan bear da, sozio-ekonomiazko eta teknolojiazko egiturak (gaur-egun geiegiz bidegabetuak) era-

EUROPA'ko PRESONDEGIETAKO BIZTANLEAK
1983'ko OTSAILAK

	<i>Presondegie- tako biztan- leak guzira</i>	<i>100.000 biztanletik zenbat atzilotu</i>	<i>Epai-aurre- koen eunekoa</i>	<i>Emakumeen eunekoa</i>	<i>Mutiko eta adineko gazteen eunekoa</i>	<i>Atzerritarren eunekoa</i>
Austria	8.748	114,0	25,9	3,8	2,9	7,1
Beljika	5.343	53,4	37,8	4,2	0,6	7,1
Txipre	156	29,7	3,8	0,7	28,7	17,3
Dinamarka	3.236	63,0	28,7	4,0	17,2	3,7
España	22.720	59,8	47,6	2,5	45,7	9,9
Franzia	37.649	67,8	51,6	3,5	17,0	25,7
Grezia	3.300	35,0	31,8	3,5	17,0	12,1
Irlanda	1.281	37,0	11,5	3,5	29,3	1,4
Islandia	83	35,3	12,0	3,5	15,1	1,2
Italia	36.515	64,6	76,0	3,8	2,9	8,7
Luxemburgo	287	72,0	46,7	2,4	30,0	26,8
Malta	101	29,0	29,7	5,0	4,9	8,9
Noruega	2.051	51,5	27,1	3,3	10,6	4,9
Paises Bajos	3.900	28,0	42,3	2,6	25,6	21,8
Portugal	5.188	53,0	32,0	3,6	10,8	5,9
R.F.A.	63.431	102,8	28,1	3,7	12,0	9,4
Reino Unido	43.368	87,0	17,5	3,0	29,0	9,7
Suecia	5.461	65,0	19,5	3,5	2,8	16,5
Suiza	3.700	58,0	32,4	3,6	25,9	25,2

berritu bear direla, eta (aurrez kriminologiazko ikerketak egiñaz) erritar guztieri, eta batez ere "arriskuan" daudenari, zuzenduko zaizkien prebentzio orokorrezko benazko egitasmoak moldatu bear direla. Ez da naikoa prebentzio ori iadanik delikuyente eta/edo drogazaleeri ematea.

Presondegia eta bere ingurukoak, gizakoia den guttia bezela, historiakin batera aldatzen joaten da; gaur, alde askotatik, oraingotu bearra daukate. Ara emen oraingotu bearreko batzuek:

- 1) Asketasunik gabe barruan daudenei beren oiñarritzko eskubideak gozatzeko eta garatzeko aukera eman bear zaie. Baita beren kultur eta erlijiozko baloreak ere, eta ez aske bizi diranen personei baiño gutxiago. Oiekin solasaldi ireki bat eukitzeak, espezialista askok ez dakizkiten izkutukoak arkitzen ditu.
- 2) Presondegia barruko oiñarritzko eskubideen ukatze astunen aurka irabazteko itzaropenez burruka egin liteke, Estatu Aginteak (gizakoia baiñan ermoa) bai presondegia barruan bai kanpoan zor zaien giñoan ezagutzea lortzen badute.
- 3) Presondegia-erakundeetako funtzionariari setatsua adierazi bear zaie beren eginkizun nagusia barruan dagoena errespetatzea, ulertzea, laguntzea eta serbitzea dela. Batipat asketasuna kendu zaien drogazaleak. Funtzionarien solidarietazko arpegiak eragin eginkorra dute egoera aserrekoiak ebitatu edo gainditzeko.
- 4) Erritar danok presondegia-erakundeetan izaten diran gertaera lazarriakin kezkatuta egon bear degu, eta politikaren eta erlijioaren agintariei presondegietako gizarte-ekintzazko egitarau zeatzak eskatu, drogazaleen arazoa aaztu gabe, gure erantzunkizuna aaztu gabe, ba J. Oteiza'k idatzi duan bezela (Quousque tandem...! 90'garren zenbakia): "Iñor ez da naitanaiezko, Danok gera bearrezko".
- 5) Lenbaitlen sartu bear da Estaduko Autonomiazko Elkarteen Zigor-Legedian "probaketa" teoriako laguntz eta kontrolaren erakunde bezela. Zentzu ontan, 1983'ko Ekainean Barzelona'n ospatuzan symposium'en ondorioak arretari audientiarekin jaso bear dira.

Beste errialdetako ejemploari jarraituaz, adibidez Italia, Zuzenbideko Ministeritzak Osakintzarekin alkatuaz, giltzapean dauden drogazaleen tratamenturako, dagozkien Autonomiazko Elkarteekin bat egin da, presondegiak sortu eta bear bezela ornitu bear ditu. Giltzapean dauden drogazaleen tratamenturako, dagozkien Autonomiazko Ekarteekin bat egin da, presondegiak sortu eta bear bezela ornitu bear ditu. Giltzapean dauden oien erantzunkizuna dutenak begiratu bear dute, aske irtetzen direnean, tratamen berezia bear ba dute, osasun-eraikundeetan bear denean eta bear duten bezela artuan izan ditezela.

Bukatu aurretik aipa dezagun, orain dela gutxi, José María Diaz Alegria'k idatziz esaten zuna: Gizakoi elkar-bizitzaren arazoek egitako erabakien oinarria zegoala solidaritzan, gizon guztien duintasuna nabaritutako dan gizartezuzentasunetik datorren ontasunen alkarren arteko banaketan.

Itz gutxitan esateko, drogaren drama naiz presondegi barruan, naiz kanpoan politiko-gizartezkoa dela Lopez-Rey'en tesia sendotuta gelditzen da, eta kriminologilarian egitekoa, batipat gizaldi berrikoena dela, al dan bezela, mundu berri ori, eta berak bear duan kriminologia martxan ipintzea, mundu obe bat berari dagokion kriminolojiakin sortzeko bear larria dagoela jabetuaz, au eta garapena (zentzu zabalean artuta) berezi ezinezko eran batuak bait daude.

DROGEN SAL-EROSKETAZ ZIGOR-LEGEDIA ESPAÑA'n

1. ZIGOR-LEGEDIAREN 344'garren ARTIKULUA

Droga eta psikotropikazko suzantzien abuso eta sal-erosketaren arazoak, asiera asieratik, teknikazko serio-tasunik aundienarekin erabiltzea bearretsitzen du eta, era berean, Aranguren'ek deitzen dion "arpegi alaiarekin".

"Zigor-Legediaren Eraberritzen Bear Larriko eta Parteko" izenez deitua izan zan 8/1983'ko Ekainaren 25'eko (27'ko BOE) Lege Organikoak, legezkoa ez dan toxikazko drogaen, lo-arazleen (estupefacientes), sikotropikazko sustantzien sal-erosketak salatzen dituan 344'garren artikuluan aldaketa nabarmenak sartzen ditu. GAUR EGUN Lege Organiko ori indarrean dagoenez 8/1983, texto berriak onela dio:

"Beren lurretan landuz, ortarako lantegietan egiñaz edo sal-erosketaz toxikazko droga'en, lo-arazleen (estupefacientes) eta psikotropikazko sustantzien legez kanpoko konsumoa pizkortu, orren alde egin edo errezten dutenaz, edo orretarako ba'leuzkake, presoaldi txiki eta 30.000'tik eta 1.500.000'rañoko pst'ren diru-zigor-rakin zigortuak izango dira, osasunari kalte aundia egian lezakenak ba'dira, eta beste kasuetan atzilotze aundiakin.

Maila nagusiko zigorrak ezarriko zaizkie, toxikazko drogak, lo-erazleak, (estupefacientes), psikotropikazko sustantziak, emezortzi urtez bekoen artean, irakas-zentroetan, kuarteletan, presondegi-eraikundeetan zabalduko diranean, erruduna zabaltzekoa den antolamentukoa

balitzake, eta baita ere sal-erosketako daukan kopurua nabarmenki garrantzizkoa balitzake.

Aipatutako egintza oiek erri-funtzionari batek, bere langintzaren geiegikeriz egiñak badira, orduan, gaiñera, bere lana egiteko debeku berezia ezarriko zaio. Zigor onek bere barruan artzen ditu sendagilleak eta osakintzako titulodunak, botikarioak eta auen mendekoak.

2. KRIMINOLOJIAZKO GOGAKETAK

Droga gizarteari, ekonomiari, zuzenbideari, ertzaingoari, erlijioari eta politikari dagokion arazo astun bat da, eta legelari eta legelari ez diranengandik arreta oparo eta ondo pentsatua eskatzen du.

Etiolojiaren aldetik, bere ondorioetan eta gutxi edo asko izan litezken erabakietan, jakintzazko eta bizitzaren esparruekin ain korapillatua dagoen garaien astunak, ikerketa sakon bat egitera, nazioko eta nazio-arteko legezko arauketaren sustraizko era-berritze batera, eta gai auetan zuzenean sartuak dauden eraikunde eta personon gaurkotzera beartzen du, XX'garren mendeko izurri au al dan guztian gutxitzeko.

Sal-erostunekin (eta drogazaleekin) kriminal-politika eginkor bat lortzeko aurrez, arazoa auetan zer-ikusia duten zenbait egille aztertzea konbeni da.

Konsumo eta legzekoa ez dan sal-erosketaren arazoak erabakitzeke kriminal-Politikako espezialistak kontuan euki bear dituzten "etiolojiako egilleen" artean eragiña duan, eta ez azkenekoa, espirtuzko balioren eza eta/edo auleria da.

Drogaren arazoketan iru esparru bereizi bear dira: drogazaleena, sal-erostunena eta drogazale sal-erostunena. Ikerketa, legegintza eta praxia, ain bereziak, baiñan alkarrekin ain batuak dauden iru talde auetaz arduratu bear dute.

Ikerlariak, al duten guztian, drogaren kutsatzearen metodolojia argitu bear dute, nola droga biguñak drogaren gorakaldian eragiten duten, sal-erostun eta drogazaleen artean dagoen alde, eta onen nortasuna (bere bir-nortasuntzea lortzeko).

Drogazaleak bere zalekeria galtzeko eta bir-gizartetzeko eraikundeak bear dituzte. Gaur egun, dirutza

aundiak eskatzen dituzten eraikunde auek, gure artean ez daukate bear ainbateko zientziaren babesik. Aueta-ko zentro asko, zientzi gutxikoa den drogazalearen irudi oker baten finkatzen dira, zearo galdutzat jotzen bait dute, eta gaiñera, bere sendakuntzaren ekiñaldi ajolazkoena aaztutzen dute, alegia, zalekeria galdu ondorengo datoren bir-gizartetzea.

Drogaren kutsadurak sarritan, agirian ipintzea konbeni dan zenbait urrats ematen dituzte. Kannabis izaten da, batzuen iritziz, heroinaruntz ematen dan gorkaldiaren asiera. Baiñan, esaten dan baño indar geiagokin jarduten dute asiera ortan alkoholak, nikotinak eta sarritan sendagai batzuk.

Drogazale sal-erostun txikien kopuruak, sal-erostuna gaxo dagoanakin parekatzea eraman genezazke, eta orrela, legezko, zigorrezko eta sendakintzazko tratamentuko bide okerretan bukatuko litzake. Geienetan drogaren bidea eta krimenaren bidea bikiak dira, eta ezta erreza izaten bietatik zein asi zan lenengo kajiten.

Gogora dezagun, Franzisko Alonso-Fernandez-ek dionez, pensatzen eta sufritzen duan gizona munduan bizi danetik, gorputzeko eta psikolojiako sufrimenak kentzeko, eta adimena eta sentimenaren garapenari eragiteko droga artu izan duela. Ezin dezakegu pentsatu droga elimina dezakegunik. Aalegindu gaitezen munduan dugun izurrite orokor ori gutxitzen, ametsetan ibilli gabe, eta gaiñera zaitu dezagun gaztedia, ortxen egiten du kalteri aundiena drogak eta.

Emengo eta ango espezialistak naiko luteke, gaurko eta biarko gazte eta adiñekoak, beren lanean, beren atsedenean eta jolasean, drogarik gabe gizon egin ditezela. Ori lortzeko drogaren esparru asmagaitz orren barruna zientzi geiagoz aztertu bearra daukagu.

Drogatan sartuak dauden legezko ondasunak obetogo babesteko ez ote litzake obe izango, Nazio-Batueta-ko Ituna izenpetu zuten errialdeak, beren zigorrezko eraketan egin duten bezela, sustantzi auen sal-erosketa salatzea. Teorilari batzuek beste zentzu batean jotzen dute, L. Hulmans eta beste batzuek bezela.

Espezialista geienak, aldiz, bearrezko jotzen dute zigortzeko, drogaren sal-erosketa salatzea.

Aspalditik, XIX'garren mende ezkerostik, hispaniar tratadista guztiak bat datoz, drogaen salatzea bearrezkoa dela aitortzean (agian ez denena). Cabo del Ro-

sal'ek bearrezkotzat jotzen du legezkoa ez dan drogaen sal-erosketa salatzea: "Estadu batek personaren asketasuna seriozki liteken egin nai badu, ori gerta dedin, bearrezkoa den era baten bideak ipini bear ditu, eta beragatik bere kontrolpean artu ori galazten duten produktoak..."

Nazio Batuak eta Europako Konseillua kemenez eta buruz jardun bearraz jabetuak daude (sarritan ikerketa berrien bearra azpimarratzen dute), ain baita astuna eta korapillotsua gizartean sortu eta bere ainbeste esparruetan zabaltzen dan drogaren arazoa.

3. BESTE ERRIALDEETAKO LEGEDIA

Kulturari dagokionez (gutxi edo asko), gure inguruko diren eta 1961'eko eta 1971'ko Nazio Arteko Itunak izenpetu dituzten errialde asko antzeko bidetik dabilta, baiñan badituzte bereizgarri nabarmenak ere. Errialde guztiak bide batetik dijoaz zigorrezko sariak drogaen sal-erosketa ertsitzeko ezartzen dituenean, eta erriaren iritziak sal-erosketa ori txartzat jotzen duenean, baitipat biktimak gazteak direnean. Errialde guztietan asketasuna kentzen duten zigorra ezartzen zaie eta diru-zigorra. Asketasuna kentzen dutenak l'etik 10 urterañoakoak izan litezke.

4. ZIZENBIDEZKO ONDASUN BABESTUA. GORPUTZ OSASUNA ETA GIZARTE-GARAPENA (ESTADISTIKAZKO DATOAK)

Zuzenbidez'ko ondasun babestua artikulo ontan zeaztea gauza zaila gertatzen da. Ala ere, zenbait arrazoiagatik, zuenbidezko ondasun batipat babestutzat artu liteke erri-osasuna. Droga gogorren legezko ez dan sal-erosketa (eta baita agian ariñena ere) bere ondorengo geiegizko erabiltze eta konsumoagatik, erabiltzen dutenetan patolojiatzko erasoak sortzen dituzte. Gaur egun, gure kultur barrutiko errialdeetan geiegizko erabiltze onek, batzuetan, eriotza ere ekarri lezake, bai kosumoagatik, eta baita bat-batean uzteagatik ere.

Gaiñera, aitortu bearra dago, delikuentzian drogak badutela zer-ikusi, kriminaltasunaren mota batzuetan batipat. Okerrerako persona askoren kemena eta indarkeri itsua geitu egiten da droga-ezaren zantzupean jarduten dutenean.

Baita ere, Estaduaren erraltxorentzat galera aundiak ekarri oi dituan kontrabandoaren delituak, eta gutxi edo asko ezagutuak diran bere dirutzak ere kontuan artzekoak dira. Drogaren sal-erosketaren ondorio ezezkoiaren artean batzuk Erri-Legediaren esparruari dagozkie, eta iñoiz, garrantzi aundia iristen dute, orregatik gogora ekarri bear dira 344 artikulok babesten dituan zuzenbidezko ondasunaz mintzatzean.

5. DROGATZAT ZER ARTU BEAR DAN

Zigor-Legediaren 344 artikulokaren benetako adierazpenarako autore geienak, bein eta berriz, esaten digute garrantzi funtsezkoa dela droga toxikotzat, lo-arazleetzat, (estupefacientes), psikotropikazko sustantizat zer artu bear ondo mugatzea eta aztertzea.

Ez legeak, ez teoriako ikasketak, ez dute oraindik nazioen barrutian, ezta ere nazio-artekoan zeatz eta meatz, puntu ontan ezer garbirik esaten. Oni dagokionez, sendagilleak eta batez ere, farmakolariak eta psikiatrak, laguntza aundikoak izan litezke eta izan bear dute.

Mariano Jimenez Huerta'k dion bezela, drogaen, lo-arazleen (estupefacientes), eta psikotropikoen adierazpena eta esan naia askotarikoa eta zabala da, beren jatorria natur-jakintzetan bait dago.

Nazio arteko zuzenbidezko izendegia

Nazio-arteko agiriak, kastellanoz egindako beren texto —itzulpen— ofizialetan, izen auek ibiltzen dituzte batipat, lo-arazle (estupefacientes), droga, prestatuak, eta psikotropikazko sustantziak. Oni dagokionez, arreta berezia merezi du 1961'eko Nazio Batuen Batzar Bakarra'k, 1971'ko Psikotropikazko Sustantziaz egindako Itunak eta, bere neurrian, Cherif Bassiouni'ren Nazio-arteko Zigor-Legediaren Egitasmoak 1961'eko Nazio

Batuen Batzar Bakarrak ez du esaten drogatzat zer artzen dun, naiz eta itz au bere 32'garren artikuluan erabili. Leendabiziko artikuluan, ordea, zer daukan lo-arazletzat (estupefacientes) eta zer prestatutzat zeazten du: prestatua da lo-arazlearen bat daukan legorki (sólido) edo ixurki (líquido) naasdura bat; eta lo-arazlea 1 eta 11'garren zerrendako edozein sustantzi natural edo sintetikoa.

Ezta ere, ez du 1971'eko psikotropikazko sustantziaz egindako Itunak droga zer dan esaten; bai ordea zer artzen dun "prestatutzat". Sustantzi psikotropikazkotzat edozein sustantzi natural edo sintetikoa artzen du, edo Itunaren azkenean dagoen I, II edo IV'garren zer endako edozein gai natural.

Españako aministraziozko izendegia

1967'ko Apirillaren 8'ko, 17/1967 Legeak, 1961'eko Itun Bakarrean ezarri ziranakin españiar legedia egokitzean, bere bigarren artikuluan lo-arazletzat artzen ditu, 1961'eko Itunari eratxikitako I eta II zerrendan sartutako sustantzi natural edo sintetikoak, eta gainera aipatutako Itun orren arabera, nazio-arteko esparruan orrelakotzat artutakoak, eta nazio esparruan arauz ezartzen dan egikeraz; eta "gauz debekatutzat artuak izango dira aipatutako Itun orri eratxikitako IV'garren zerrendan sartuak dauden edo izango diran lo-arazleak (estupefacientes)". Españar legearen leendabiziko artikulok Itunak sendakoari zintzo jarraitzen dio, legorki izan (sólido) edo ixurki izan (líquido) lo-arazlea daukan naasdura bat "prestatutzat" artzen duanean.

Españako zigor-leggedizko izendegia

Zigor-Legedia, bere 344'garren artikuluan gaur-egun dakarkianez, "toxikazko drogari, lo-arazlei (estupefacientes) eta sustantzi psikotropikazkoeri" dagokie. 1983 baño leenagoko izendegian "toxikazko drogaz eta lo-arazleaz" itz egiten zan. 1944'ean itz berak erabiltzen zituan. 1932'ko Zigor-Legediak, gai oni dagozkien 346 eta urrengo artikuluetan "sendagaitzat", "osasunarentzat kaltegarri diran sustantzizat" eta "galera aundiak egin litzazken kimiazko produktotzat" artzen ziran. Ba-

ñan, toxikazko droga eta lo-arazlea itz auek etzitan erabiltzen.

1978'ko Konstituzioa bete bearreko lege biurtu zonetik, legeak beartzen du epailaria toxikazko drogatzen edo lo-arazleentzen (estupefacientes) edo psikotropikazko sustantzitzen artzea, ofizialki España'n argitaratuak izan diran 1961'eko eta 1971'ko nazio-arteko arauketari dagozkien sustantzi danak eta bakarrak.

Konstituzioaren 96'garren, 1, artikuloa, nazio-arteko Itunak ofizialki España'n argitaratuak izan ondoren, barren antolamentuaren parte biurtzen ditu, eta Zibil-Legediaren 1'go, 5, artikuluan nazio-arteko itunetan dauden zuzenbidezko arauak España'n zuzenean ezarriak izango dira, Estatu Boletin Ofizialen osorik argitaratu ondoren, barren antolamentura igaro diranetik.

Beragatik, España'k izenpetutako nazio-arteko Elkar-go eta Itunak, eta sustantzi aueri dagozkien aministratuzko eta fiskal-legeak, era berean, eratziki zaizkien zerrendak, epailarientzen, zer sustantzi "drogatzen" artu bear dan erabakitzen, izan litezke eta izan bear dute irizpide eta gidari.

España' epailariak, beraz, 1961'eko Itunak, eta 1967'ko Legeak I, II, IV zerrendaren bateko, 1971'ko psikotropikazko sustantziaren egindako Itunaren I, II, III eta IV zerrendatan sartzen diran drogaren salerosketaren bidez, debekatutako konsumoa eragiten duena zigortu lezake, naiz eta jakin (gertatu liteken bezela) farmakojikazko jakintzaren eta kriminolojiazko auzitegiko trebeen arauera, kasu zentzen ontan, zerrenda oietan sartuak daudenari dagozkien kalte orrelakorik ez egin. Droga jakin orren konsumoa, beste nazioetan ala ez bada ere, gizarteari begiratu egokia iruditzen bada España'n, España'ko Gobernuak, 1961'eko Itunari salbuespen bat, eta 1971'eko psikotropikazko sustantziaren egindako Itunaren 32'garren artikuloa ametitzen ditun salbuespenak agertu bear zituan. Legez aurkako salerosmen onen nazio-arteko zabalerak, legelarien baimenik gabe, nazioaren berezitasunen alde ez digu, kosta ala kosta, ateratzen uzten.

Españar irakaskizuna

Luzon Peña'k ametitzen du, nazio-arteko Itunen zerrendatan sartua dagon sustantzi ura, oiñarri orokor bezela, Auzi-Maia'k drogatzat artu bear duala, baiñan, sustantzi zeatz bat toxikazko edo lo-arazle (estupefaciente) bezela ezin bailiteke artu, kontuan artu bear da salbuespen au.

Espezialisten arauera, Zigor-Legedian, bear ez bezelako erabiltze eta sal-erosketak, osasunarentzat, portaerarentzat, erri-ekonomiarentzat, gizadiaren gorputzaren eta oituraren osasunarentzat, nabarmenki arriskugarri direnak, gizartezko eta ekonomiazko arrisku nabarmena eta nor-bakoitzarentzat kalte aundia berekin dutenak, Nazio Batuetako Itunen zerrendatan sartuak dauden sustantziak egiten dutenen antzera, droga bezela adieraztera emanak izan bear dute.

Onelatsu mintzatzan da Europa'ko Konseillua bere Erabaki (73)6 egoki eta sendoan. Erabaki ontan "droga" itzean, bere egokitasun psiko-eginkor eta besteagatik, geiegiz erabiltzera eraman dezakelako, eta batzuetan mendean artutakoaren egoerara ere, eraman dezakzen sustantzi guztiak sartzen dira.

Azkenik, 1978'ko Konstituzioa zutik dagoen ezkeroztik, 344'garren artikuloa utsik dagoan zigor-lege batez artu bear da, 1961'eko I, II, IV zerrendatan dauden sustantziak eta, 1971'ko Otsaillaren 21'ean Biena'ko Itunarekin bat egiñaz, psikotropikazko sustantziak, eta nazio-arteko barrutian, dagokion Itunaren arabera, lo-arazle (estupefacientes) edo psikotropikazko sustantzi mailan sartzen diran gañontzeko guztiak eta gaiñera, España'ren barruan orrelakotzat garbi adierazitakoak bertan sartu bear bait dira.

6. DROGA GOGOR ETA BIGUNAK

1983'ko Ekainaren Eraberritzearen beste asmakizuna, aurrez esan gendun bezela, osasunari kalte aundia egin lezaketen drogak eta bestetik besteak, sustraizko bereziketari dagokio. Fernandez Albor'ek, aspalditik bearretsitzen zuan, drogaren zenbait ondoren kaltegarrien aipamena.

344'garren artikulorearen lenengo atalan, osasunari kalte aundia egiten dioten sustantziak ari danean, geinuetan, droga gogorrek deituetan pentsatuz ari da, adibidez, heroina. Atal berean "beste kasotan" esaten duanean, berriz, droga bigun edo arifietaz ari da, adibidez, griffa edo marihuana, kannabis eta oietatik datoztenak, auek kalte gutxiago egiten diotelako geinuetan osasunari. Bereizketa au ondo egiña dagoela dirudi, baiñan espezialista batzuen iritziz, psikolojiako ondorioak ez datoz drogaren sustantzia artze utsetik, baita ere, eta neurri aundi batean, bere giro eta gizaritezko ingurumaritik. Ez da aaztu bear, gaiñera, heroina eta beste droga gogor zaleak, griffa edo marihuana eta onelako sustantzi arifietik asi zirela.

Eredu bezela gogora dezagun, España'ko Farmaziarien Elkargoko Konseillu Orokorrek, orain dala gutxi, argitaratu duan txostena. Txosten ontan esaten digute, droga bigunak, eta zeatzki marihuanak, asko artzen balinbada, L.S.D., psilobizina, meskalina eta auen kideko droga gogorrek sortzen dituzten antzeko burugaltze egoerak ekarri ditzazkela .

Goieneko Auzitegiak, orain dala gutxitik, 1983'ko Ekaineko Lege Organikoaren geroztikako erabaki batzuetan, bere jarrera agertzen du, zeintsuk artu bear diran droga gogortzat eta zeintsuk biguntzat dago-kionari.

7. BI FUNTSEZKO DELITU

Leenago esaten genduan bezela, 1983'ko eraberritzearen lortzerik nagusienetako bat da, garbi bereizten dituala salatutako portaerak batetik (debekatutako drogaren sal-erosketa), eta bestetik norberak artzeko (legezkoa ez izan arren) drogaren eukitze utsa ez tipifikatzea. Eukitzea, sal-erosketarako eukitzen danean bakarrik saltzen da.

Gaurko zigor-legediaren arabera auek dira zigortzen direnak

1. Legezkoa ez dan konsumoa pizkortu, lagundu eta errezten (landuz, egiñaz edo sal-erosketaren bitartez)
2. Salmentarako drogaren jabe direnak.

1. Legezkoa ez dan drogaren pizkortzea.

Nazio-arteko Itunen Epai-Mai Gorengo Lege Jakintzaren argitan esan dezakegu pizkortzea bezela artu bearko dela edozein zabalkunde mota, eskeintz mota, salmentarako eskeintzak eta abar, 1967'ko Apirillaren 8'ko legearen 18, 1 artikulok debekatzen dituan kasuetan, legezko baimena dutenean izan ezik.

2. Salmentarako drogaren jabe direnak.

Bigarren au salmentarako drogaren jabe diranen inguruan dabil. Emen argi eta garbi, Zigor-Legediaren kanpo gelditzen da norberaren konsumorako droga eukitzea, saltzeko eukitzea bakarrik salatzen bait du, baiñan, ez doai bezela beste bati emateko edo trukatzeko aukerarekin (geienetan drogazale bateri).

Epai-Mai Gorengoak (1983'ko Azaroaren 14'ko Erabakia) ziurtatzen duenez, droga saltzeko edo norberarentzat dan jakiteko irizpideak finkatzea ez da erreza, eta besteen artean, droga aukeratu drogazalea balinbada irizpidetzat artzea ametitzen du, baita ere nun atzitu izan dan, etxean, kalean, edaritegian, jolastokietan eta abar, oietan salerosketatzen delako, eta batez ere, zenbat zant atzitu, autatik atera bait diteke zertarako ote zeukaten droga ori.

Droga salerosketarako aukeratu jakiteko aztarran ona izango litzake, ornitzalleari salmentarako edo neurketarako lanabesak arkituko balitzaizkioke adibidez, prezisiozko, aztallua. Zalantzarik balego salerosketarako dan edo ez jakiteko, Epai-Maiak (1983'ko Irailaren 30'eko Erabakia) epaitua izan bear duanaren alde makurtu bear du.

8. ZUZENBIDEZKO IZAERA. ARRISKUZKO DELITUAK

344'garren artikulok kaltekoa ez baño arriskuzko delitua deskribatzen du, eta ez arrisku zeatz batekoa, ezta hipotesisko arriskua, arrisku abstrakto bateko delitua baño.

Arrisku abstraktozko delituak dira. gerta litezken delituak, erritarren osasuna drogaren mendean erortzeko arriskuan jartzea, gerta bait liteke.

Zuzenbidezko ondasuna erasateak ez du esan nai kalte zeatz bat egiteraño iritxiko litzakela, naikoa da kalte ori egitan gerta litekena izatea. Epai-Mai Goren-go Erabakiak (1982'ko Urrillaren 11'koak), 344'garren artikulon onen delituak, delitu biurtzeko, kalte zeatzaren ondorena bear ez duten delitu abstraktotzat jotzen ditu; ortarako bi gauz auek naikoak ditu: bat kanpokoa, drogaren sal-erosketak egitea, eta bestea barrenekoa edo psikolojiazkoa, sal-eroslariak badakiala ez daukala baimenik egiten duna egiteko.

9. NORBEREBAITAKO MOTA ETA EGITEKO ERA AKASTUNAK

Itz gutxitan, Muñoz Conde'kin delitu auetaz esan liteke, droga erabilli lezaketenen osasunarentzat kaltegarri direla ezagutzeaz gafiñera (elkargoaren osasuna), erosleen eta beste personen legezkoa ez dan konsumoa bakarrik lagundu nai dionean, ez dago amarruri.

10. DELITUAREN AUNDIAGOTZEA

Komentatzen ari geran artikulon onen bigarren atalak, Epai-Maia mailla goiegoko zigorrak ezartzea bear-tzen duan lenengo maillako bereiztasuna lau suposamen auetan ipintzendu.

1 "Toxikazko drogak, lo-arazleak (estupefacientes), sikotropikazko sustantziak emezortzi urtez bekoen artean zabaltzen diranean".

2 "Irakaskintza zentroetan, militar unitateetan edo presondegietan".

3 "Erruduna, zabaltzea elburu duan antolamentukoa balitz".

4 "Sal-erosketarako zeukan kopurua garrantzi nabarmenekoa balitz". Auetako bat ere etzegon 1983'ko Ekaina baiño lanago zutik zegoan legedian. Erreduna droga zabaltzea elburu duan antolamentukoa denean 173'garren 1 artikulon tipifikatuatakoakin pilatzen da eta "elburutzat delituren bat, eta antolatuta gero egi-

tera eragiten badu”, artikulo onek legezko ez den elkargotzat bezela zigortzen du.

Aundiagotzea drogaren kopuruagatik balinbada (Sal-erosketarako daukan kopurua garrantzi nabarmenekoa balitz), epai-aukeraren esku gelditzen da. Epai-maiak ez du droga kopuruaren aundia bakarrik kontutan artu bear, baita bere nolakotasuna, eta gizartezko eta personari dagozkion inguru-giroak ere.

Toxikazko drogak, lo-erazleak (estupefacientes) eta psikotropikazko sustantziak irakasteko zentroetan, kuar-teletan, edo presondegietan zabaltzen diranean zigorra geitzea, ez dirudi oso buruz emandako erantzuna danik, ezta praktikoa ere, gaur-egungo kriminal politika-ren argitan.

Gaur-egungo erakutsien eta bizikintzaren (esperien-tzia) argitan zarrakituak daude arriskutasunaz eta bir-gizartetzeaz Legearen 2, 7'garren, eta 8'garren artiku-loak, eta 6, 5'garren eta 6'garren artikulok.

Lenbaitlen eta sustraitik eraberritu bear da legedi au. Datorren eraberritze ortarako laguntza ona izan li-teke Europako Konseilluaren estudioak ezagutzea. Es-trasburgo'n, 1983'ko Martxoaren 14'tik 16'ra, Ponpidou Taldeak, au da, “drogaren geiegikerien eta legezkoa ez den sal-erosketaren aurkako burrukari dagokionetako Lankidego Taldeak”, toxiko astunen giza-laguntzaz Sim-posio bat ospatu zan. Geroztik, legezko agintedunak Simposio ortako ondorio eta gomendapenak adierazi dituzte. Oietatik orain ipintzen ditugunak, gutxienez, gogora ekartzea interesgarria da:

— Ez dago ain erremedio gabeko drogazalerik, be-retzat drogatzen jarraitzea beste biderik ez daukala esan litekenik, naiz berak toxiko-zale sendokoen talde-koak izan, “toxikomane lourd” (hard-core addict).

— Toxikozaleen tratamenturako bear bezela orni-tako zentroetan, gutxi gora bera, % 30 bir-gizartetze lortu litezke.

— Erri-alde bakoitzak, ondo ikasi bear du, eta bere giza-kultur inguru-giroari ondoen dagozkion erak auke-ratu. (Autonomiazko Elkarteak eskuartze eginkor eta berezigarria izan bear dute).

— Toxikomaniaren (personen) arazoa erabakitzen saiatzea baiño obe da, toxiko-zale bakoitzaren arazoa erabakitzen saiatzea, bere familiko, lanezko eta elkar-gozko inguru-giroak kontuan artuaz, batez ere.

11. ERAIKUNDE PUBLIKOA ETA ENTREPRESAK TIPO KUALIFIKATUAK BEZELA

Laugarren atalak, zenbait suposamen, funtsez eta eraz oso egokia ez dan teknika baten bitartez, bigarren kualifikamen batekin aundiagotuak azaltzen dizkigu. Ez dirudi, suposamen oiek zeintzuk eta zenbat diran garbi dagoamik, bat banaka edo zenbait multzoetan bereiztuak ulertu bait litezke. Lenengo irakurtze batean iru suposamen izango lirake: 1'go azkenetaraño etorriak: 2'garren Eraikunde publikoan egiñak diranean: 3'garren Antolamentuko buruzagi, aministrari edo arduradunak diranean.

Zein suposamen artu bear diran azkenetaño etorritako kasu bezela Epai-Maiaren esku gelditzen da.

Burazagi bezela kasu batzuetan jabeak edo, jeren-teak artu bearko dira, beste batzuetan dagokien antolamentuko zuzendariak; aministrariak izango dira bai Aministrakuntzako Konseillariak, bai aipatutako antolamena, erabat edo parte batean benetan aministratzen dutenak; arduradunak —edozein zentzutan— izango dira, antolamentuko au edo beste parte ura kontrolatzen dutenak. Antolamentu au, leenago esan dugun legezkoa ez dan konsumoa eragin, lagundu eta errezten duan lanari erabat edo parte batean emana egon bear du.

Gaur egun, zutik dagoan 4'garren atalak dionez, bi edo iru suposamen auetan, zigorra oso astuna izan liteke, eta ezartzea epai-maia beartua dago (ez orrela 1982'ko egitasmoaz). Osasunari gaitz aundia egiten duten drogaz ari geranean, zigorra, gutxienekoan, presoaldi aundia eta 30.000'tik 2.250.000 pta'ñoko multa izango da, baiñan giltzape txikira ere iritxi liteke eta 30.000'tik 3.375.000 pta'ñoko multara.

12. NAZIO-ARTEKO ZIGOR-LEGEDIA, BER-ERORTZEA, OITURATASUNA, eta EXTRADIZIOA. KONTRABANDOA

344'garren artikuloaren azkeneko atalak leenago zutik zegoan textoaren osakerari eusten dio, eta delitu auetan atzerriko Epai-Maien gaitzezpena, berrerortze-ari dagokionez, España'ko Epai-Maien gaitzezpenak ba-

lira bezala artuak izango direla ezartzen du. Oiturata-suna 100'garren artikulok kontuan artzen du epai-maiak, oituak dauden gaizkilleeri giza-terapiaren zentroan sartuak izatea ezarri dezaien, kasu batzuetan bost urtez beko aldirako.

Zoritzarrez, 344'garren artikulok, 1983'an eraberritu den bezela, ez du 1961'eko Itun Bakarra jasotzen; Itun ortan bere 36'garren 2 artikulokan drogaren sal-erosketaren delituarentzat, zigor-legediaren lur-printzipioa gainditu eta mundu zabaleko eskubidea ezartzen du. Aipatutako 2 zenbakiak erabakitzen du "dagokion konstituzioak ezarri dezazken salbuespenak kontuan arturik, 1 eraskiñan zenbatzen diran delitu bakoitza errialde ez-berdiñetan egiten bada, bestelako delitutzat artuko da. Atsegingarria izango zan legelariak, gure Zigor-Legediak 288'garren artikulokan iadanik, diruaren faltzifikatzeari dagokionez daukana, gutxi gora-bera, gure 344'garren artikulokan sartuko baluke. Orrela egiten ez bada, sal-erostuna España'n bizi liteke eta bertatik, zuzenbidearen bildurrik gabe, beste errialdeetan drogaren legezkoa ez dan merkaturia antolatu lezake. Errialde oiek, geienez, estradizioa eskatzea aal izango dute.

Teknika obeagoz, Zigor-Legedi berriaren Aurre-egitasmoaren Lege asmoak (1983), bere 10'garren artikulokan nazio gaiñetiko irizpidea ontzat artzen du, eta España'ko Zigor-Legeak, psikotropikazkoen eta lo-arazleen (estudefacientes) legezkoa ez dan sal-erosketako delituak, naiz España'n, naiz atzerrian egiten dituzteneri, ezarri aal izango dizkie.

13. DAGOZKIEN ZIGOR-SARIAK

Esparru ontan 1983'ko eraberritzea aurea ondo emandako urrats bat izan da. Orain arte zutik zegoan legeak Epai-Maiaren esku uzten zuana geiegizkoa zan. Errudunaren eta egintzaren inguru-giroa kontuan arturik, sei illabeteko asketasuna kentze eta 10.000 pta'ko multatik, ogei urteko asketasuna kentze eta milloi'terdi pta'ko multarañoko tarte ortan zebillen zigorra emateko eskubidea ematen zien Epai-Maiari (gaiñera, egillea fakultatiboa bazan, eta bere profesioaren abusoare-

kin ari balinbazan, beren eginkizunean lan egitea debekatzea).

Zigorrak orain, atzilopen aunditik (illabete eta egun bateko asketasuna kentzea), giltzape txikirañoako tartean dabiltz (ogei urteko asketasuna kentzea), gaiñera 30.000 pta'tik 375.000 pta'rañoako multa, eta gaiñera, ezarri litezken beste zigor neurriak, gaiñera bere tokian azaldu degun bezela, bere karguari dagokion eginkizuna bete aal ezin izatea. 1983'ko Ekainako eraberritze aurrekoan baiño aukera aundiagoa dago orain, baiñan, gaur-egungo 344'garren artikuloak lege maillan, legez erabakitzekeo elementu geiago sartzen ditu, eta beragatik epaiezeko zeatzpenari arloa gutxitzen dio.

14. DROGAPEAN ERORITAKOEN ELKARGOIA GIPUZKOAN

Aurretik agertutakoaren argitan, orain laburki, ain xotilki "Guipuzkoan Drogapean Eroritakoan Elkargoak egin dizkigun galderari erantzutera goaz.

¿Gaur-egungo presondegia zentro bat delikuentziaren ikastol bat dela baieztu aal liteke?"

— Zoritzarrez bai, salbuespen gutxi batzuk izan ezik, esan liteke eta esan bear da presondegia-erakundeak, gaurko gure gizartean, krimenaren unibersitate direla.

Ortik ez degu atera bear presondegia-erakunde guztiak itxi genezazkela. Obe ala balitz. Bainan, nere iritziz ezin degu. Dezakeguna, eta egin bear gendukena da, bizigarri biurtu.

Ezta ere ez degu atera bear, presondegitako giza-peko egoera ikusita, bertako funtzionariak orrez errudun diranik. Ez. Danok gera errudun. Eta guk egoera oiek obetogo ezagutu bear ditugu, eta ezagutu ondoren, sustraitik antz-berritu, Gustav Radbruch, Dorado Montero, Lardizabal eta Uribe'tar Manuel eta beste ainbestek esaten diguten bezela. Presondegia, sustraitik eta lenbaitlen, itxura berritu bear dira, edo basatikeri okerrenetako garaira biurtuko gera.

“¿Zer iruditzen zaizu, dirua irabaztearren atzerrira persona drogazaleak bialtzen ditun sal-eroslea, eta berak diru ederrak egiten ditualarik, beste oiek droga

pixka bat bakarrakin ordainduak izaten diranak, erruan eta zigorrean berdintzen dituan legedia?”.

España'r Legedi eta praxiak, 1983'ko Ekaina arte orrelako esankizuneri eta baita zorrotzagoeri ere, bide ematen zien. Fetxa ori ezkeroztik, oraindik nai litzaken zuzenbide legezko, ao bateko eta alkarrekin ados datoreen erantzuna ez lortu, Zigor-Legediaren artikuloak beren esakera berrietan, zerbait urreratzen ari dira espezialisten eta Zuzenbide berdikantuak eskatzen dutenara. Zigor-Legediak bere 344'garren artikuloan, leenago ikusi degun bezela, garrantzi aundiko berrikuntz baikorrak sartu ditu. Gogora ditzagun orain laburki “osasunari gaitz aundia egiten dioten sustantzien eta gaitzontzeko kasuen bereizkuntza”, azkeneko aueri, au da drogak bigunak deitueri dagokienean, zigor ariñagoa ezarriaz; mailla baten zigorrak aundiagotzea, toxikazko drogak, lo-arazleak (estupefacientes), eta psikotropikazko sustantziak, “18 urtezbekoen artean, irakas-zentroetan, kuarteletan eta presondegi-erakundeetan zabaltzen diranean”; zigorra aunditu egiten da baita ere, arrunki “padrinos” deituak parte artzen dutenean; au da “drogak barreiatzea elburu duten antolamentukoak” diran personak, edo “sal-erosketarako daukaten droga kopurua garrantzi nabarmenekoa balitz”. Leen esaten genduan legedi berri onen beste asmakizunetako bat izan da, erabateko garrantzikoak eta egintza oiek erakunde publikoan, edo agintea duten personak egiñak diranean kontuan artzea. Kasu auetan mailla goragoko zigorra ezarri dezakete eta, gaitzera, orain esango ditugun bezelako neurri eginkorrak erabaki aal izango dute.

a) Enpresak eta bere etxe eta tegiak ixtea, edo elkargoa ezabatzea.

b) Sei illabetetik urte beteraño enpresa edo elkargoaren ariketak gelditu araztea.

c) Bi illabetetik urtebeteraño enpresari edo elkargoari, sal-erosketako lanak edo bere jardunaren bitartean delitua egin, lagundu edo estali lezaken motako irabazpidean ariketak galeraztea.

Bestetik, betiko mozkor eta toxikozaleei, auengan gizartearekiko arriskutasuna ikusiko balitz, Arriskutasunaren eta Bir-gizartetzearen Legak, bere 6'garren ar-

tikuloan 5'garren zenbakian eskatzen du, egoki izango litzaken arabera, danak batean edo tarteka betetzeko emen ipintzen diran neurri bat edo batzuk ezartzea:

a) Bakartasun sendagarria erabidezko etxeetan.

b) Anbulatorioko tratamendua.

c) Motordun gurdiak ibiltzeko baimena kendu, eta ateratzea debekatu.

d) Zein etxeetan bizi dan agertzea, edo toki jakin baten bizitzea eta ordezkoen zaintzapeari menderatzea...”.

Legedi au beteko balitzake eta legezko agintedunak bearrezkoak zaizkien bideak beren esku baleuzkazke, sufrimentu asko eta zorixar asko uxatuko lirake gure artetik.

1983'ko urtearen azken aldera Zuzenbidearen Ministeritzak, dirudienez politikazko arrazoiagatik, aurrera egiteko bidean Lege-Biltzarrean oraindik sartu ez dan Zigor-Legedi Berriaren Aurre-Egitasmoaren Proposamena, bere 22 eta 23 artikuluetan espezialisten arteko aritiko dijoa aurreratzen, eta Epailariari, drogazale ez dan eta erantzunkizun osokin jarduten duan gaizkilleagandik, batere erantzunkizunik gabe jarduten duan gaizkille drogazalea, eta azkenik, erantzunkizun gutxikin jarduten duan gaizkille drogazalea gandik bereizteko, legezko arau egoki batzuek eskeintzen dizkie.

Bigarren kasuan, “toxikoaren menpean oso osoan dagoenean” ez du erantzunkizunik izango. Irugarren kasuan, “alkohol edo bestelako zerbaitekin intoxikatua” dagoenean, “baiñan ez oso-osoa”, kriminal erantzunkizuna gutxitu egin bear litzaioke. IV'garren Tituloan, ziurtasun neurriaz aritzean, Zigor-Legediko Aurre-Egitasmoaren Proposamenak, orain arte legearen aurrez-ikusiak baiño politika kriminal berriakin obetogo datozten neurriak aurkezten ditu. Itxaron dezagun, ala eta guztiz ere, legelaria ez dedilla legearen izki otzarekin ase bete (idaztea erreza da), eta legezko agintedunen eskuetan bearrezko direnak ipini ditzala, oitura galtzeko zentroetan barneratze oiek, sendakintza zentroetan kanpoko tratamendura edo “gaxo-etxetakora” menderatze ori eta abar... benetan eragille izan ditezela.

Itz gutxitan, Zigor-Legedi Berriak, gaizkille drogazaleeri dagokienetan, ain ordaingarriak ez diran neurrietara jotzen du. Bein eta berriz aitortu bearra daukagu, Zigor-Legedia nai-ta-naiezko zati bat dela, naiz bietarakoa izan, ondoren ezkor eta baikorrakin, drogari erantzuna ematerakoan, eta ikerketa egitea konbeni da Zigor-Legedia baiño obeagoko zerbait asmatzeko.

“¿Uste al dezu zuk, egunero gramo bat baiño geiago bear dituan drogazale batek, atrako bat egitera dijoan une artan, edo bizibearraren estuak egoera larri ontara bultzatzen duanean, kriminologiazko kontzientziaren jabe dela?”.

Artu-ezaren sindromeak, iñoiz reakzio oso gogorrak eta ain ertsakorrak sortzen ditulako, sufritzen dituanaren askatasuna oso gutxitua edo ezerreztua gelditzen da. Besteetan berriz, artu-ezaren sindromeak ez dauka egitako oiñarririk, naiz eta sufritzen duanak ez orrela pentsatu. Sarritan, Europako Konseilluak bein eta berriz gogora ekartzen digun bezela, nor-bakoitzaren eta familien egoera negargarrien aurrean gaude, eta onek gizarteari, bere mailla guztietan, biotz zabaltasun aundia eta adimen argia bearretsitzen dio.

GERO

EVSKAL LIBURVAK



Ediciones Mensajero

Esku-liburuak GERO - BILBAO - Ap. 73

1. *Jainkoaren Billa*. Orixe.
2. *Marxen Marxismoa*. G. Garate (agortua).
3. *Euskal Aditza*. P. Altuna (agortua).
4. *Izatearen Malura*. X. Azurmendi.
5. *Euskal Herriaren Historia (I)*. Federiko Zabala (agortua).
6. *Euskalerriko Ekonomia (1955-1967)*. Gurutz Ansola (agortua).
7. *Ajea du Urturik*. A. Lertxundi.
8. *Isolottoko Katekima*.
9. *Langileria Historian Zehar*. Martin Ugalde (agortua).
10. *Lehen Gizarteak*. Benentxio Otaegi.
11. *Marx eta Nazioa*. G. Garate (agortua).
12. *Hizkuntza eta Pentsakera*. Larresoro (agortua).
13. *Europako Ezker Berria*. X. Mendiguren.
14. *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*.
15. *Zorion baten zainak*. Gorka Trintxerpe.
16. *Novela Berria Hego-Amerikan*. Mikel Lasa.
17. *Industria herri baten Azterketa*. Siadeko.
18. *Giza Zirriborroa*. K. Alkorta.
19. *Zenbait Hitzaldi*. Mitxelena.
20. *Pio Baroja*. Elkar Lanean.
21. *Usa-ren agintaritzza eta dolarraren ahulezia*. G. Ansola.
22. *Itsasoa Ur-Bazter luzea da*. Martin Ugalde (agortua).

23. *Muga beroak*. J. M. Lekuona (*agortua*).
24. *Gatu Beltza*. T. Peillen (*agortua*).
- 25-26. *Lanaren Antropologia*. R. Garate (*agortua*).
27. *Txingo*. Sabin Irizar (*agortua*).
28. *Goiko Kale*. A. Lertxundi (*agortua*).
29. *Pedagogia Gaur*. J. Erzibengoa (*agortua*).
30. *Langilea Historian Zehar* (II). Mikel Ugalde (*agortua*).
31. *Hiru Gizon Bakarka*. B. Gandiaga (*agortua*).
32. *Santa Kruz Apaiza*. Orixe (*agortua*).
33. *Marxen Ondoko Errebisionismoa*. G. Garate.
34. *Artegintza, Artista, Gizartea*. Edorka Kortadi.
- 35-36. *Bigarren poema liburua*. Xabier Lete (*agortua*).
37. *Aintzinako sozio-ekonomia* (I). Luis Maria Muxika.
38. *Ipui Antzeko*. Mikel Zarate.
- 39-40. *Industriagintza bidean*.
41. *Gizartea eta parasozialismoa*. Luis Maria Muxika.
42. *Iraultza sobietarra eta literatura*. J. Azurmendi.
43. *Euskal Herriaren Historia* (II). Federiko Zabala.
44. *Oilarraren promesa*. Juan M. Irigoien.
- 45-46. *Jon Mirande-ren Idazlan Hautatuak*.
47. *Pertsonaia*. Karlos Otegi (*agortua*).
48. *Elurtzan dantzaten zuhaitz*. Jon Lariz.
- 49-50. *Maoren Marxismoa: Maoismoa*. Gotzon Garate.
51. *Testuak aztertzen*. J. M. Muxika (*agortua*).
52. *Perpau bakunaren sintasia*. Jose A. Muxika.
53. *Begia Begi truk*. I. Etxaide (*agortua*).
54. *Amaiur*. I. Etxaide (*agortua*).
55. *Domiku Garat*. I. Fagoaga.
56. *Muskilak*. Gotzon Garate.
57. *Lehortean*. Gotzon Garate.
58. *Lenin eta Nazioen Autodeterminazioa*. Gotzon Garate.
59. *Urgull mendiko zuloa*. Imanol Zaldua.
60. *Leninen Marxismoa: Leninismoa*. Gotzon Garate.
61. *Euskal Elaberrien kondaira* (I). Gotzon Garate.
62. *Euskal Mitologia*. José Luis Arriaga.
63. *Herrimina*. Imanol Zaldua.
64. *Lanaren Antropologia* (II). (Lehen Atalar). Roman Garate.
65. *Lanaren Antropologia* (II). (Bigarren Atala). Roman Garate.

66. *Euskal Elaberrien kondaira (II)*. Gotzon Garate.
67. *Presondegiak, Gazteen gaizkintza, Drogak*. Antonio Beristain.

KIMU SAILA

1. *Euskal Literatura (I)*. J. Erzibengoa - P. Ezkiaga.
2. *Martin Arotza eta Jaun Deabrua eta sendagile Maltzurra*. Lourdes Iriondo (agortua).
3. *Haurra Ipui denean*. Zarauzko Ikastolako Haurrak (agortua).
4. *Hego - Haizearen Ipuinak*. Lourdes Iriondo (agortua).
6. *Antso Garteiz*. Jesus M. Arrieta.
7. *Euskal Literatura (III*)*. J. Erzibengoa - P. Ezkiaga.
8. *Amaia*. I. Azkune - J. M. Arrieta.
9. *Euskal Literatura (III**)*. J. Erzibengoa - P. Ezkiaga.
10. *Izarren begietan*. Elgoibarko Ikastolako Haurrak (agortua).
11. *Eneko Haritza*. Iñaki Azkune.
12. *Buruntza azpian*. Lourdes Iriondo.
13. *Kattalin Erauso*. Iñaki Azkune.
14. *Gilen Tell*. F. Schiller.
15. *Goi mendian zehar*. A. Narbaiza.
16. *Harkaitz elurra ari zueneko*. Jesus M. Arrieta.
17. *Lurraren bihotzeraino*. Julio Verne.
18. *Moby Dick*. Herman Melville.
19. *Euskal Herriaren Historia (I)*. Luis Baraiazarra.
20. *Euskal Herriaren Historia (II)*. Luis Baraiazarra.
21. *Belartzelaiko Mutikoteak*. A. Sarriegi.
22. *Hirugarren atalak*. Bitaño.
23. *Ipuinak (I)*. Bitaño.
24. *Elizondoko Eskutitzak*. G. Garate.
25. *Indieta beltza*. Julio Verne.
26. *Filatelia Vasca*. H. Antoñana.
27. *Ipuinak (II)*. Bitaño.
28. *Historia de Euskal Herria*. J. L. Arriaga.
29. *Nafarroako ezkurran*. G. Garate.
30. *Aldarte oneko ipuinak*. Gotzon Garate.
31. *Donostiarrok txantxetan*. Imanol Zaldúa.
32. *Ipuinak (III)*. Bitaño.

33. *Noni eta Mani*. Svensson.
34. *Mendiko Argia*. F. Weiser.
35. *Nafarroa zutik*. Imanol Zaldúa.
36. *Kriskitin kraskitin*. Imanol Zaldúa.
37. *Urola ibaian*. Imanol Zaldúa.
38. *Kazetari bat iheska*. Imanol Zaldúa.

EUSKARA ESKOLARA

Euskara hire laguna (I). P. Altuna.

Euskara hire laguna (II). P. Altuna (*agortua*).

Ariketak. Euskara hire laguna. P. Altuna.

Euskara Mailaka 0. S. E. I. E.

Hasierako zikloa. 1.

Hasierako zikloa. 2.

Euskara Mailaka 1. S. E. I. E.

Euskara Mailaka 2. S. E. I. E.

Euskara Mailaka 3. S. E. I. E.

Euskara Mailaka 4. S. E. I. E.

Euskara Mailaka. Ariketak (0-1)

Euskara Mailaka. Ariketak (2)

Euskara Mailaka. Ariketak (3)

Euskara Mailaka. Ariketak (0-3)

Euskara Mailaka. Mintzabidea.

Euskalerria. Geografia. Iñaki Goikoetxea.

Ikaslearen esku gramatika. Pello Salaburu.

Euskara Mailaka 0

221 filmina bost kaxatan.

5 kaxeta.

Euskara Mailaka 1

120 filmina iru kaxatan.

6 kaxeta.

Euskara Mailaka 2

185 kartelak.

185 filmina lau kaxatan.

2 kaxeta.

Euskara Mailaka 3

201 filmina lau kaxatan.

4 kaxeta.

IPUINAK

Beleko eta biak.

Mendiko Argia. Franz Weiser.

BESTE BATZUEK

Lehen Euskal Herria. Jesus Altuna.

Montañas y civilización vascas. C. Dendaletche.

Diccionario Castellano - Vasco. Plácido Mujika.

Diccionario Vasco - Castellano. Plácido Mujika (Dos tomos).

Seksu Ezibidea. S. Bigatelo.

Itun Berria. P. Olariaga.

Itun Berria (Telaz). Olabide.

Itun Zar eta Berria (Telaz). Olabide.

Itun Zar eta Berria (Larruz). Olabide.

Euskal Herria. Equipo de Redacción Pal. Ilustraciones en blanco y negro, más cuatro encartes de 4 páginas cada uno con ilustraciones a color.

Entzun! 7-11 urte bitarteko haurrarentzat BIBLIA.

A. J. McGallen. (Euskal itzulpena J. Goikoetxeak).

50 años de pelota vasca. Equipo de Redacción Pal.

Hiru liburu Etxeparez. Trilogía Dechepariana. P. Altuna.

1. *Versificación de Dechepare.*

2. *Etxepareren hiztegia.* Léxico dechepariano.

3. *Etxepareren edizio kritikoa.* Edición crítica de Dechepare.

Zorro batean bildutako hiru liburuak.

Manual Devotionezcoa (1. zatia). Joannes Etxeberri Ziburukoa. Patxi Altunak paratua.

Aita Sebastian Mendibururen Idazlan. Argitaragabeak. (Bi liburu). Patxi Altunak paratua.

Ser Vasco. Jean Haritchelhar y otros.

El misterio vasco desvelado. Paul Arnold.

IRAKURGAIK

Mailaka 0

1. *2R2 eta Olagarroa.* Aitor Zenarruzabeitia. E.M. 0 (1-2 kap.).

2. *Naiara.* Aitor Zenarruzabeitia. E.M. 0 (3-5 kap.).

3. *Arranopola*. Aitor Zenarruzabeitia. E.M. 0 (6-8 kap.).
4. *Urki*. Aitor Zenarruzabeitia. E.M. 0 (9-11 kap.).

Mailaka 1

1. *Tzunpatzun*. Aitor Zenarruzabeitia. E.M. I (1-2 kap.).
2. *Espartarrak borrokan*. Xabi Kalbo. E.M. I (3-4 kap.).
3. *Eguzki - Lorea*. Xabi Kalbo. E.M. I (5 kap.).
4. *Herensugea*. Xabi Kalko. E. M. I (6-7 kap.).
5. *WZX*. Aitor Zenarruzabeitia. E.M. I (8-9 kap.).
6. *Gau beltza*. Xabi Kalbo. E.M. I (10-11 kap.).

Mailaka 2

1. *Otzaurteko ezkilak*. Joxe Erzibengoa. E.M. II (1).
2. *Sorgintxulako Pikondoa*. Joxe Erzibengoa. E.M. II (2).
3. *Izaro*. Joxe Erzibengoa. E.M. II (3).
4. *Erbikumeak*. Joxe Erzibengoa. E.M. II (4).
5. *Pontxe*. Joxe Erzibengoa. E.M. II (5).
6. *Xabier*. Joxe Erzibengoa. E.M. II (6).

Mailaka 3

1. *Eguberritako ipuinak*. Periko Alkain. E.M. III (1).
2. *Ortzadarreko bidea*. Periko Alkain. E.M. III (2).
3. *Antron Eraso (I)*. Patxi Ezkiaga. E.M. III (3).
4. *Antron Eraso (II)*. Patxi Ezkiaga. E.M. III (4).
5. *Alain*. Patxi Ezkiaga. E.M. III (5).
6. *Karnaba*. Patxi Ezkiaga. E.M. III (6).

Mailaka 4

1. *Marrumak*. Jon Lezamiz. E.M. IV (1).
2. *Sirenotsa*. Jon Lezamiz. E.M. IV (2).
3. *Zapatarien aukera*. Jon Lezamiz. E.M. IV (3).
4. *Katalamundira*. Jokin Otaegi. E.M. IV (4).
5. *Hegoak banitu*. Jon Lezamiz. E.M. IV (5).
6. *Bulegari itxura zuen*. Jon Lezamiz. E.M. IV (6).
7. *Zurrumurruak*. Jon Lezamiz. E.M. IV (7).

A. Beristain'en Liburuak iru zati ditu: Lenenengoan, KARTZELATUEN Problema ukitzen da: Problema beti ere garratza bañan, gaurko eguneen, Euskalerrian garrantzi berezi bat izan dezakeana, gai ontan egin ditzakegun obekuntza ta okerezuzentzeen gaitik. Bigarren zatian, GAZTETXOEN DELITUKERIA aipatzen ditu du gure liburuak; eta Batikano II'aren ondoan etorri diran "moralistak" aipatzen ditu bereziki gure A. Beristain'ek, delituaren imajiña bir-examiñatuaz moralista berriak eman duten pausu ederragatik, Jesus'ek berak pekatari entzatzuan erruki aundia gogoratuaz. Irugarren zatian, DROGAREN Problema ukitzen da, bete-betean; eta iru alderditatik ukitu ere: alderdi historikotik, alderdi ekonomikotik eta alderdi politikotik. Eskuarten degun Liburuak ez da gaizki etorriko gaurko egunean, Euskalerrian bertan gauzak ikusten bezala ikusita. Eskerrak ematekoa da, benetan.

(Manuel Lekuona'k)

GERO 
EVSKAL LIBURVAK



Ediciones Mensajero